

Denbora-

1 Hitz zuzenaren bila

Lana amaitzeko, bost hitz hauek zuzen idaztea falta zaio Josuneri. Hitzegian begiratu behar du. Ba al dakizu nola idazten diren, hitzegian begiratu gabe?



Erantzunak: 1.- Ahalbide, astekari, eskuoihal, saihestu, astakeria. 4.- Pelikula-film, miresgarri-harrigarri, oinustik-ortozik, hondar-harea, disgustu nahigabe. 5.- C eta D.



2 Labirintoa



Amaiur Garaziren bila dabil, baina ez daki nora joan den. Lagunduko al diozu Garazirengana eramango duen bidea bilatzen?



3 Aurkitu irudian

Praxku margolariaren margo ontziak dira hauek. Hiru ontzi pare errepikatu egiten dira. Zein?



- pasak



4 Sinonimoekin jolasean

Gozoki bereziak banatu dizkie gaur Xabik lagunei. Bakoitzak bina hartu behar ditu: esanahi bera duten bi gozokiak. Hori kontuan izanik, nola banatuko zenituzke zuk?

5 Bikiak

Tapiaren soinu berdina erosi nahi zuen Ugaitzek. Hauexek dira dendan zeuden soinuak.

Bi berdinak dira, ordea; ea asmatzen duzun zein diren.



Jolasa Kontuz baloiarekin!

Entzun ongi zein izen oihukatzen duen baloia duen lagunak, agian baloiaren bila joan beharko baituzu



1 Jokalarietako batek baloia hartuko du eskuetan. Gainerako jokalaria haren inguruan jarriko dira, biribilean, eta baloia ukituko dute eskuarekin.

2 Baloia duen jokalaria gorantz jaurtiko du baloia. Jaurtitzen duen bitartean, jokalariren baten izena oihukatu behar du. Eider, esaterako.

3 Eiderrek korrika joan beharko du baloiaren bila. Gainerako jokalariek, berriz, ihes egin beharko dute.

4 Eiderrek baloia lurrera erori aurretik airean hartzea lortzen badu, beste jokalariren baten izena esan ahal izango du. Baloiak bote egin ostean hartu badu, ordea, «gelditu!» oihukatu behar du. Gelditu esan orduko, gainerako jokalaria guztiak dauden lekuan gertatu behar dute, geldi-geldirik.

5 Baloia jaso duen lekutik botatzen saiatuko da

Eider. Helburua: baloiarekin jokalariren bat jotzea. Baloia jaurti aurretik hiru pauso eman ahal izango ditu, jokalariairengana hurbildu ahal izateko.

6 Baloiak jokalaria jo eta lurrera erortzen bada, jokalaria zaurituta gertatuko da. Eiderrek jaurtiketan huts egiten badu, hots, ez badu beste jokalaria jotzen, Eider bera izango da zauritua. Eta beste jokalaria horrek baloia esku artean hartzea lortzen badu, orduan ere Eider gertatuko da zauritua.

7 Hurrengo aldian, jokalaria zauritua jaurtiko du baloia gorantz. Hiru bider zauritzen duten jokalaria jokoz kanpo gertatuko da.

